

# GIDA

HAURREK TELEBISTAREKIN ETA  
GAINERAKO PANTAILEKIN HARREMAN  
ONA IZATEKO



Nafarroako  
Gobernua

CoAN  
Consejo Audiovisual de Navarra

"FAMILIA, TELEBISTA ETA BESTE PANTAILAK"  
KANPAINA

# Telebistaren eta ikus-entzunezko eta komunikazioko teknologia berrien ahalmenak eta arriskuak

Telebistak eta teknologia berriek informazio, kultur, harreman eta josteta beharrak asetzen dituzte, bai haurren, bai helduen. Gure seme-alabek baliabide horiek baztertua nahi dugu? Ez. Alderantziz, ahal den gehiena aprobetxatzen ikas dezaten (eta dezagun) saiatu behar dugu guk, erabilera okerretik etor daitezkeen arriskuak eta oztopoak baztertu.

## ■ Gehiegikeria

- Gehiegikeriak ondorio fisikoak ekar ditzake: sedentarismoak sortutako obesitatea, jarrerako edo ikusmeneko arazoak, etab.
- Haurren garapenerako funtsezkoak diren jardueretarako bera gutxitzen du: etxeko lanak, jokoa, familiako komunikazioa, irakurketa, aire zabaleko jarduerak, kirola, gizarte harremanak...
- Zenbaitetan, gehiegikeriak komunikazioko beste bideak gozatzeko edo baliatzeko gaitasunean eragin dezake. Adibidez, ikerketa batzuek aipatu dutenez, ikus-entzunezkoen kontsumo handiegia ikasleen kontzentrazio gaitasunean eragin dezake. Ikasleak, estimuluz betetako mintzairan eta erritmoan ohiturik, ezin dira adi egon irakaslearen azalpenaren edo irakurketa baten aurrean.

## ■ Haurrak gizartetik bakartzea


- Haurrak gizartetik bakartzen dira ikus-entzunezkoen kontsumoari emandako orduak gehituta gizarte harremanetarako denbora gutxitzen dutenean.
- Beste batzuetan, harremanetarako zailtasunak aurretikoak dira eta telebistaren, bideo jokoen edo interneten kontsumoa babes bihurtzen da harremanetarako edo beste zerbaitetarako zailtasunen aurrean. Jakina, babes horrek ez ditu arazoak konpontzen, ezkutatu baizik eta zenbaitetan, baita handitu ere.

## ■ Harreman desegokiak

- Komunikazioko teknologia berriek gizarte harremanak sortzeko eta mantentzeko balio dezakete (sakelakoak, txat bidezko internet, berri-taldeak edo posta elektronikoa).
- Haien bidez distantziak txikitzen dira eta mugak desagaitzen; beraz, mundu guztiko pertsonekin harremana izateko aukera ematen digute.
- Baina, abantailekin batera, teknologia berriek arriskua ere badakarte, umeen heldutasun prozesuan eragin desegokia izan dezaketen pertsonekin harremana ahalbidetzen dutelako.

## ■ Eduki desegokiak

- Komunikazioko teknologia berriek eta telebistak aukera ematen dute, aise eta agudo, informazio ugari jasotzeko, orain dela urte batzuk pentsaezina zen moduan.
- Seme-alabek eduki horiek informazio, josteta eta heziketarako erabil ditzakete. Baina, badira beste batzuk eragin okerra izan dezaketenak haien heldutasun prozesuan, zenbait arazoirengatik: adinerako desegokiak, ematen dituzten balio motak, etab.
- Gehien aztertu diren bat indarkeria dugu. Hurrek indarkeriazko eszenak ikusi ondoren ekintza horiek bizitza errealean burutu nahi ote dituzten gainean adostasunik ez dago. Bai, ordea, eszenen bi ondorio nagusiei buruz: gogortzea (indarkeria dosi gero eta handiagoak behar dituzte harrizteko) eta obsesionatzea (bizitza errealean dagoen arriskuaren pertzeptzio gehiegizkoa).



## ***Gogoetarako datu batzuk*** <sup>(1)</sup>

### **TELEBISTA**

Hainbat ikerketaren arabera, 4 eta 12 urte arteko gazteek:

Telebistan eta beste pantailetan denbora gehiago igarotzen dute (990 ordu urtean) ikastetxean baino (960 ordu).

750.000 adingabek telebista ikusten dute gaueko hamarretatik aurrera eta 200.000 adingabek hamabietatik aurrera.

Telebistako edukietatik %25 bakarrik dira haurrentzat.

Gurasoetatik %30ak ikusten du telebista beti edo ia beti seme-alabekin.

%36ak telebista dauka logelan.

### **BESTE "PANTAILA" BATZUEN TOKIA**

8 eta 13 urteko lau umetatik hiruk bideokontsola dauka etxean eta egunean, batez beste, 25 minutuz jostatzen da harekin, hau da, 152 orduz urtean.

10 -17 urteko mutikoen erdiek eta adin bereko neskatuen %25ak onartzen dute bideo joko batzuen edukia gurasoek ezagutuz gero, ez lieketela haiekin jostatzen utziko.


AEBetan eginiko ikerketek agertzen dute haurrek denbora gehiago ematen dutela bideo jokoetan telebistan baino.

Etxeko ordenagailuen erabiltzaileen laurdenek 15 urte baino gutxiago dituzte.

Espaniako familietatik %19ak du interneteko lotura.

Nerabe gehienek (%60ak) sakelako telefonoa daukate.

(1) Ikerketa hauetatik ateratako datuak: Consell de l'Audiovisual de Catalunya, 2.003; Protégeles, Civertice y Defensor del Menor de la Comunidad de Madrid, 2.005; CEACCU, 2.004; Kaiser Family Foundation, 2.004.



## **Sozializazioan familiak duen garrantzia**

Bizi dugun gizartea gero eta konplexuagoa da eta, horrekin batera, familiaren bizitza eta haurren heziketa neurri berean korapilatu dira. Hala ere, gure seme-alabak familiaren eraginetik at, burbuila batean bizi daitezkeela pentsatzea bezain okerra litzateke haien heziketa gure esku bakarrik dagoela sinestea.

Gurasook bi mutur horien artean jarri behar dugu, jakinki:

- *Gure seme-alaben heziketan beste eragile batzuekin ari garela.*

Bizitzako lehen urteetan familiaren eragina erabatekoa da baina, piskana-piskana, beste eremu eta erakundeak sartzen dira, haurren sozializazioan garrantzia dutenak: eskola, adiskideak, hedabideak, etab.

- *Zenbat eta kanpoko eragin gehiago izan, orduan eta esanahi handiagoa familiaren heziketa lanak.*

Bada, egoera horretan, nahitaezkoa da sozializazioan familia izatea eremu nagusia, haurren eta kanpoko eraginen artean bitartekotza eginez.

## **Sozializazioan telebistak eta ikus-entzunezko eta komunikazioko teknologia berriek duten garrantzia**

Lehen esan den bezala, gure seme-alabek bizi duten gizartea konplexua eta aldakorra da eta guk bizi genuenetik oso ezberdina gauza askotan.

- Bi garaien arteko ezberdintasun handienetakoa da ikus-entzunezkoak bihurtu direla, poliki-poliki, haurrak sozializatzeko biderik indartsuenetako eta eraginkorrenetako bat.
- Familia gehienek garrantzitsutzat jotzen dute ikastetxe on bat hautatzea edo seme-alaben adiskideak zein diren jakitea. Ordea, telebistaren eta teknologia berrien erabileran haurrek beharrezkoa duten kontrolari eta eraginari dagokienean ez da berdin jokatzten.
- Jarrera horren arrazoia izan daiteke ez garela jabetzen, erabatean, hedabide horiek gure seme-alabentzat duten garrantziaz. Baina gertatzen zaigu, orobat, egoerari aurre egin diogunean, ikus-entzunezko hedabideak eta teknologia berriak bezalako mundu hain ugari eta aldakorraren ezagupenak eta baliabideak falta zaizkigula.
  - Telebistaren aldaketek, beste “pantaila” batzuen agerpenak (ordenagailuak, bideo jokoak, internet, sakelakoak) eta haien arteko loturak (internet bidezko telebista, bideo jokoak sakelakoan, internet telebistan, telebista sakelakoaren bidez...) aise nahasten dituzte gurasoak.
  - Horregatik saiatu behar da eremu horretan familiak egin behar duen heziketa-lana galarazteko moduko “haustura teknologikorik” gerta ez dadin gurasoen eta umeen artean.

# Familian egin dezakeguna

Telebistaren eta teknologia berrien eraginaren eta umeen arteko bitartekotzan, oso mesedegarria litzateke familiak hiru ardura hauek hartzea:

## ■ Ezagutu:

Gure seme-alabek kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoen eta komunikazioko teknologien ezaugarriak eta edukiak ezagutu behar ditugu gurasook, adibidez, ondoko hauek:

### **Telebistaren eskaintza**

Komeni da hautatzea hurrek ikusi behar dituzten programak, adinaren eta familian erakutsi nahi ditugun balioekin edukiek duten harremanaren arabera.

Horri dagokionez, ondokoak ezagutzea oinarritzkoa da: programazio gidaliburuak; telebistako eduki sailkapen sistema; ezarritako babes ordutegiak eta babes bereziko ordutegiak; haurren eskubideak programazioaren eta publizitatearen aurrean; irregulartasunak zein erakunde ofizialetan salatu, etab.

<http://www.tvinfancia.es>

Telebista edukiei eta haurtzarolari buruzko autorregulazio kodea.

<http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es/oficina/index.htm>

Ikusentzuleak Babesteko Bulegoa

### **Bideo jokoek edukia**

Komeni da hautatzea, merkatuko bideo jokoek artean, familian erakutsi nahi ditugun balioei gehien egokitzen zaizkienak.

Horri dagokionez, bideo jokoek sailkapen sistema ezagutu behar da (PEGI kodea). Komeni diren adinak aipatzen ditu eta adierazten du, ikonoen bidez, indarkeriazko eszenak, sexu edukia dutenak, drogen erabilerarekin lotutakoak, etab.

<http://www.guiavideojuegos.es/guia.pdf>

Bideo jokoek gidaliburua, gurasoentzat.

### **Internet**

Komeni da jakitea hurrek interneteko zein orrialdetan ibiltzen diren eta familian erakutsi nahi ditugun balioekin duten harremana. Horretaz gain, interneteko komunikazio tresnen funtzionamendu, ahalmen eta arriskuekin ohitu behar dugu: txatekin, berri-taldeekin, posta elektronikoarekin.

<http://www.ciberfamilias.com/index.htm>

Internet hobeki ezagutu eta haurren segurtasunari buruzko informazioa nahi duten familia eta hezitzaileentzako gunea.

### **Sakelakoak**

Komeni da, halaber, deiez gainera, sakelakoek zerbitzuak eta arriskuak ezagutzea.

Hala ere, ez ahanzi seme-alabei galdetzea dela ezagutzeko modu egokienetako bat, telebista familian ikustea, bideo jokoetan haiekin jostatzea, interneten haiekin ibiltzea, etab.

# Familian egin dezakeguna

## ■ Babestu:

Ikus-entzunezkoen eta komunikazioko teknologien erabilerari lotutako arriskuetatik seme-alabak babesteko arauak aplikatzea da kontua. «Konparazio batera:

- Seme-alabek telebistan eta beste “pantailetan” zenbat ordu eman ditzaketen mugatzea.
- Orduategiak mugatzea. Adibidez: ez da komeni umeek telebista ikustea ikastetxera joan aurretik edo 22:00etatik aurrera, ordu horretan bukatzen baita adingabearen babeserako orduategia.
- Ahal dela ez paratu telebistarik edo ordenagailurik haurren logelan, kontrolatzeko aukera gutxitu egiten baita.
- Gure seme-alabek zein adinetan izan dezaketen sakelakoa erabaki behar da (bereziki irudiak eta jokoak “deskargatzeko” bidea ematen dutenak).
- Argi eta garbi jarri zein telebista programa ikus ditzaketen seme-alabek.
- Erreparatu bideo jokoen sailkapenari, erosi baino lehen. Bideo joko “piratak” ez eskuratu, ezin baitugu jakin haien sailkapena. Gainera, komeni da lehenago aztertzea bideo jokoen edukiak ikusteko.
- “Iragazkiak” paratu interneten, indarkeriako edukiak, arrazistak, pornografikoak, etab. dituzten orrialdeetako sarbidea galarazteko. Antibirus programa askok badauzkate “iragazkiak”. Hala ere, informatikako tresna horiek ondoko helbide honetan ere “deskarga” daitezke: <http://navegacion-segura.red.es/>
- Ez utzi seme-alabei bakarrik ibiltzen interneten. Bereziki, beharrezkoa da ondoan egotea “bilatzaileak” erabiltzen dituztenean (haurrentzako eduki desegokiak aurki baititzakete ikasketekin loturiko informazioaren bila dabilzan arren). Orobat, ondoan egon behar da heldu batek moderatzen ez duen txat edo berri-talde batean parte hartzen badute. Hoberena da “Gogokoak” sailean karpeta bat irekitzea eta han sartu ditugun orrialdeak bakarrik erabiltzea.

Hemen ere kontuan hartu gurasoak umeekin egon, lagundu eta kontrolatzea dela babesteko modu hoberenetako bat.

# Familian egin dezakeguna

## ■ Hezi

Arauk nahitaezkoak dira haurrak babesteko. Baina, ez dira aski era berean ez badugu lortzen seme-alabek haien kontsumoa kontrolatzen ikastea eta kontsumitzaile arduratsu izatea. Horretarako, gurasoek hainbat heziketa estrategia abiarazi behar dituzte. Konparazio batera:

- Norberaren ereduaren bidez hezi. Gurasook lortu behar dugu erakusten dugun erueda (teknologia berriak eta telebista erabiltzeko gure modua) eta gure umeetan lortu nahi ditugun helburuak bat etortzea.
  - Seme-alabei adierazi ikus-entzunezkoei eta komunikazioko teknologiei dagokienez familian aplikatzen diren arauen zentzua. Oldartu eta haien aurka jartzen badira ere, ziur egon beharrezkotzat jotzen dituztela.
  - Umeak hazi ahala, haiekin batera arau batzuk zehaztu, aldatu eta/edo negoziatzea oso mesedegarria da heziketa aldetik.
- Haurrekin batera telebistako programa bat ikustean, bideo joko bat erabiltzean edo interneten ibiltzean, aukera ezin hobea dugu heziketarako:
    - Seme-alaben iritzi, gustu eta erreakzioak hobeki ezagutzen ditugu.
    - Gure iritzi eta gustuak adierazteko bidea ematen digu. Errespetuz aipatuko ditugu beti. Bestalde, erakusten ditugun iritzi bakarrak gure seme-alabenak ez bezalakoak badira, baliteke eragin txarra izatea heziketa harremanean.
    - “Pantailetan” ager daitezkeen hainbat eduki ulertzen laguntzen ahal diegu.

**Hezitzea, azken batean, seme-alabei laguntzea da gizon eta emakume autonomo eta arduratsu bihur daitezen.**

